

Juan Egaña Etxabe Jontxu

*Zumaia,
Gipuzkoa (1932)*

Aurkibidea

Biografia



San Telmo kalean jaio zen eta hantxe bizi izan da beti. Gazterik hasi zen zurgintzan aitarekin ontziolan. Ontziak egiten zituzten oso-osorik: egitura orokorra eta barruko guztia (egurrezko guztia: gelak, armairuak eta abar); motorra eta burdinazko gauzak ez zituzten egiten. Musikarako ere zaletasun handia izan du eta koruan abestu izan du gazte-gaztetatik.

Zintak

ZUM-013

- **Proiektua:** Zumaiako hizkera
- **Elkarrizketatzailea(k):** Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2007-11-02
- **Iraupena:** 56 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Ontziolako lana eta irabazia

- **Erref:** ZUM-013/003
- **Iraupena:** 0:02:10. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:04:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Inguru guztietarako barkuak egiten zituzten ontziolan eta baita arrasteko pareak ere. Bi txakur handiren truke egiten zuten lana. 1962an egin zuten azkenengo itsasontzitik aurrera, konponketekin hasi ziren. Orduan hasi ziren diru gehixeago irabazten. Barkuaren egur-lana osorik egiten zuten. Zumaian itsasontzi batzuk osorik egin eta bertan usteldu ziren, haiei sartzeko motorrik ez zelako iristen.

Transkripzioa

- Eta, ze iten zenduen?
- Barkuak. Hasi Galizitik... Galizidxa, Asturias, Santander, Bizkaia, Gipuzkoa ta Frantzidxa in [gitxiu] barkuak. Ta Ondarroako arrastero parejak ´e bai! Parejak izaten zian, ba, bi igualak, arrasteko parejak. Eta hori in deu, barkua, kantidaden in deu barkua.
- Parejak zian bakillautan ibiltzeko, edo?
- Ez, hamentxe, hamentxe. Bazter... Hemen bertako barku koxkorak! Orduan zianik haundidxenak. Orduan ez zeon barku... Uain barkuak dia, bueno! Eta bi perra haundidxan iten zan lana. Iten gendun... Perraik ez zan ateatzen! Eozeiñen jornal koxkor bat eozein lekutan beitu ta haidxek baiño oindik, esate bateako, gitxidxo. Dirua irabazten hasi giñan ya reparazidxuan hasi giñanian, barkuak reparatzen. Ya laga gendun... Azkenengo barkua in gendun ni ezkondu sesenta y dosian ta sesenta y tresian in gendun azkenengo barkua. "Ana Tere Número Dos", Colindresako. Eta ya laga gendun ta bentaja earra. Geo hasi giñan reparazidxuetan...
- Eta hobeto?
- Ta reparazidxotan orduko honenbeste ta... orduan, orduan mejoratu! Bidxen bitartian ezer ez, gaixki, gaixki. Oso gaixki.
- Eta barkuak iten zian osorik, zuek, hasi ta bukatu o...
- Barkuak dana iten genduzen, zea, burni asuntoik ez, guk egur asuntuan. Baiña egur asuntuan, dana. Ta barkua bota ta askotan bi-hiru hillabetian

eon behar izaten zan akabatzen barruko lana, kamarotiak eta in behar izaten zian, ba, lotako lekuak eta danak. Eta barkua, neberak eta. Barkua botatzen zan, ba, lehenbailehen bota. Geo bitartian, montatzen ai zian bitartian, burnikuak, motorrak eta motorreko kaldera makinak. Zeatik orduan, barkuak geatu zian montatu gabe, Getaidxan indakuak eta, motorrik etorri ez. Eta ganbidxatu ez, kaldera eo zeoze sartzea animatu ez, eta barkuak berri-berridxak usteldu izan dia Zumaidxan.

- Bai, e?

- Bai.

- Motorran falta.

- Motorren faltan, ta geo, pauso hoi eman ez. Zeatik kaldera... zeak iten zian, kaldera-makinak hemen Balen ziagan iten zian, kaldera-makina deitzen zitzakon. Ziharo torpia zan konparatzeko motorrakin, baiña... Barkuak usteldu bertan, bertan puskatu barku berridxak, inda, Caxildontzat. Caxildo zan zea zekana fabrika konserba Getaidxan.

- Getaian.

- Eta barku berridxak inda, ta bertan usteldu zian, bertan puskatu zian danak, usteldu danak.

2. Itsasontzia egiteko prozesua

- **Erref:** ZUM-013/004
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:04:05. **Bukatu:** 00:06:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Barkoa oso-osorik egiten zuten. Eskaera egiten zuenak zehazten zien zein neurritakoa nahi zuen eta planoa ere beraiek egiten zuten. Killa egiteko eukaliptoaren egurra erabiltzen zuten, baina beste zatietarako haritza. Barkoa egiteko prozesua; lehenbizi armazoiak ("costillas") egiten ziren. Lan handia zuen itsasontzia egiteak. Egurra inguruko herrietatik ekartzen zuten. Lasa zen ezaguna orduan eta harekin ibiltzen ziren. Egur kamioikadak behar izaten ziren.

Transkripzioa

- Eta zuek hasi ta estruktura guztia ta, zuek eiten zenduen?

- Guk barkua dana... Diferentiak izaten zian. Batzuek luzio, bestiak zabalo, bestiak ixtuo, bestiak... dana! Geuk iten genduzen zeak eta dana, planuak eta danak.

- Eta zuek neurrira, o beaiek esandako mouan?

- Beaiek esandakoa! Beaiak esandako neurrira!

- Hau luziaua ta...

- Luzia ta zabala, ta altura. Ta egurrak ekartzen genduzen, ba, killa izaten da luzia, behi-behian juten dana, kanpuan. Eta hori jeneralian eukaliptuak ibiltzen gendun asko. Ta geo, bizkarrezurra bezela beste bat eamaten du barruan, armazoiak, eta geo barruan eamaten du beste bizkarrezurra bezela, egurrezko beste pieza, ta haidxek danak, metroko holako tornillo haundidxakin amarrauta, behetik gora sartuta. Arrastaka ibilli gea... bueno!

- Hasteko, hori zan lehenengo bizkarrezurra ta killa ta, edo?

- Bueno, aurrena iten zian armazoiak. Armazoiak dia, ba, erderaz, "costillas".

- "Costillas", bai.

- "Costillas". Ta armazoia deitzen zitzakon. Ta hoidxek iten zian bi pusketan, kurbak, kurba izugarridxa, bakizu nolako kurba dakan zean, kostauan?

- Bai.

- Eta egurra ekarri behar izaten zan kamioitan. Kamioika egurrak bildurgarri menditikan. Ta okerrak, oker-okerrak´e bai, asko. Ta geuk, geuk ebakitzen genduzen bertan serrakin. Serra´re bertan gendukan karraikiñ, ta geuk ebakitzen gendun behar zan neurridxan, zabalian. Ta geo zepilladoran ta pasa, ta prepaatu, eta lana ematen zuen... beno! Ta ziento... ehun ta zenbat milla peztan? Gutxidxan iten zian barkuak eta zenbat ordu ta zenbat lan! Ta geo, barruko piezak eta zeatzeko, doblatzeko, zea bat zeon, kaldera bat urena. Han berotu iten zian...

- Egurra?

- Egurra. Eta batetik hamabost metroa igual luze. Pixua kristona! Ta gaiñetik berua! Inpernua bezela!

- Han munitzeko!

- Hura hartu bizkarrian: batetik pixua aguantatu ezin, ta gaiñetik berua! Irekiten eondako egurra, zeatio doblatu in behar zan barruan ta!, barkuan barruan. Oso lan gogorra astillerokua.

- Eta egurra zan, eukaliptua esan dezu?

- Eukaliptua luzia, luzietako. Baiña bestela jeneala ibiltzen genduna armazoitan dana haritza, "roble", haritza.

- Eta hemendik? Hemengo...

- Hamen inguruetatik. Hamen inguru danetatik. Bateko zea aldetik... Zean baiño gehidxo, Azpeiti aldeko mendidxetan ta... Lasa zan orduan famosua, Lasa. Lasa bat solterua Matxinbentan bizi zan ta bestia ezkondua hamen, Lasaon. Taberna´re bazekaen, Lasa. Horko, horrekin ibiltzen giñan asko, Lasakin. Baiña kamioiak eta kamioiak, e! Ez bat eta bi, e! Barko bakoitzak... puf!

3. Itsasontzia egin aurreko prestaketak; lan-baldintzak

- **Erref:** ZUM-013/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:06:50. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

<p>Itsasontzia egin aurretik eskatzen zituzten neurrien arabera planoak egin eta plantia markatu behar izaten zen lurrian. Lan handia zuen. Neurri desberdinetako ontziak izanez gero, plano guztiak hutsetik egin behar. Igandetan ere lan egiten zuten, baina aurrez bikarioari baimena eskatu behar. Oporrik ere ez zuten egiten.</p>

Transkripzioa

- Eta ordun, lehenbizi bizkarrezurra ta...

- Aurrena, aurrena plantilla. Segun ze neurri zian, plantillak atea behar izaten zian ta lurrian trazatu, eta saletan markatu ta in behar izaten zian, izugarrizko lana du zeak, barkua iteko, barkua ateatzeko sistemak. Zeatik barkua izan laike pikiaua, izan laike planaua, izan laike ixtuaua ta in behar izaten zan barku baikoitza bere zeakin, bere neurridxan, zabaleruan. Bakoitzakin iñ behar izaten zan bere, bere planua atea, lurrian trazatu, ta

bere luzeeruan... izugarrizko lana ematen zun zea, barkuan planuak ateatziak!

- Bai, ta dan-dana neurrira ta beti diferentia, ez?

- Batzuetan, batzuetan bi igualtsuak ´e bai! Entenditzen? Ta igualtsuak zianakin han nonbait, baiña hurrena ziharo diferentia baldin bazan, dana berridxa in behar... plano danak berridxak! Ta izugarrizko lan pilluak! Sapatuan ´e lana iten gendun, ta jaian ´e bai!

- Jaian ´e bai?

- Ta jaian lana iteko, bikaidxuai permisua eskau behar, bestela pekatu!

- Hori esan behar nizun!

- Pekatu bestela. Ta bikaidxuai permisua. Eta sapatuan zazpi, hamar ordu igual-igual, zazpi t ´erdidxak arte. Ta bost t ´erditan hasi giñanian, Jesus! Zer zan hura! Zoragarridxa! Bost t ´erditan hasi giñanian erteten, sapatuan.

- Sapatuan. Hori ya bakaziyuak, ez?

- Bueno! Eta bakazidxuak izaten zian orduan zortzi-hamar egunekuak. Eta ez genduzen iten. Bi perro haundi eman ta fuera. Bertan lana ta lana, ta lana ta lana. Ta dirua nun zan berriik ez, lana bakarrik.

4. Soldadutza ondoren astileroaren kargu egin zen

- **Erref:** ZUM-013/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza
- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>1952an joan zen soldadutzara Ferrolera, 19 urte zituela. Gero Pasaiara etorri ziren soldadutza egitera eta ondo egon ziren. 1953an bukatu zuen soldadutza eta ordutik aurrera berak hartu zuen astileroaren kargua. Aitak ere lanean jarraitu zuen geroagora arte. 1962an ezkondu eta 1963an egin zuten azken ontzia. Geroztik konponketak egin izan dituzte.</p>

5. Itsasontzien konponketa; kalapeta

- **Erref:** ZUM-013/008
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:13:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>1963an egin zuten azken itsasontzia eta ondoen konponketak egiten hasi ziren. Inguru guztietatik ekartzen zizkieten ontziak konpontzeko. Karro gainean ateratzen zen itsasotik. "Kalapetako lana" egin dute asko. Honen inguruko azalpenak. Urtean behin ekartzen zizkieten itsasontziak, arrantzarako prest izan nahi zituztenean. Motorren bila ere Balenciaganera etorri eta konponketa guztiak eginda joaten ziren. Kargako barkoak ere etortzen zitzaizkien; hauek txapazkoak izan arren, horiei ere konpontzen zieten lurra.</p>

Transkripzioa

- Ta sesenta y tresen in gendun azkenengo barkua. Dosen ezkondu. Aittak "etorri lehenbailehen, barkua in behar diu ta!". Ta udaberridixan in gendun barkua sesenta y tresian ta ya fuera. Ta orduantxe meyoratu hura, barkua itiai laga ta meyoratu. - Reparaziyuekin, ta… - Reparazidxuakin. Orduko horrenbeste, ta… Beti juntatzen zan geo, karruak zebe, karruak, sei karro zebe Balenziagian. Barkuak karruak altxatzeko, barkuak altxatzeko, sei karro. Ta etortzen zian, ba, danetik, Gipuzkoa danetik, eta Bizkaitik´e bai, barkua zeoze zuenak reparatzea ta. - Karrua uretatik ateatzeko? - Karrua ateatzen zuen, karro gaiñian barkua lehorrea eta, kalapetatu in behar izaten zan asko. Kalapetako lana in deu asko. Kalapeta da topia […], topia gehidxena, egurrezko barkuak moitu iten dia. Barkuak moitu iten dia ta tope haidxek kalapetatu in behar izaten dia askotan, ura iten du bestela. - Ta urik ez sartzeko. - Urik ez sartzeko, kalapeta. - Eta kalapeta hori zer da? Kalapeta… - Ba, estopa. Estopa izaten da espeziala, hartakua. Ta burnidxak espezialak, batzuek fiñauak, bestiak loidxauak, errematzeko. Eta geo, masilla o porlana ematen zitzakon kanal hartan. Berez hobia… Oaiñ, harrezkeo, erten zuen gauza hobiak, baiño orduan ez zeon ezer. Ta masilla, berriz, goortzen, goortzen laga ezkeo, bai, baiña barkua bota in behar izaten zan, ta biuna geatzen zan masilla. Ta pixkat porlanakin o in, ta, geo erten zuen produktu berridixaguak, plastikuak eta ya erten zuen azkenengo urtietan eta ya gehidxo, hobiak. - Baiña bestela, estopa ta masilla ta… - Estopa, estopa, jo ta… Baiña bota iten dula jarri behar zendun, goor-goor-goorra. Ta igual hasieran igual, ta!, ta burniya barruraiño. [Han ura iten zuna] kantidadia. Barkua, egurrezko barkua asko moitzen da. Asko-asko-asko moitzen da egurrezko barkua. - Eta normalian ze ekartzen zian urtian behiñ, o? - Hoidxek jenealian urtian behin. Zeako, antxoetako, o bestela atunetako. Primavera o San Pedroetako jenealian etortzen zian. Ta igual, barkuak, igual hiru-lau barku zean ta dana jo ta presaka ibilli behar! Baiña halare, barkuak, egurrezko barkuak iten aldian askoz hobeto. Zoze, dirua sartzen zan, bestela ezta diru-piurikan´e! Perraik ez zan iten! - Eta, reparaziyuak eta hamen inguruko herri guztietakuak? Getaria ta… - Herri danetakuk. Hondarrubitik hasi, ta geo Santandertik´e bai ta asturianuak´e bai, ta… Motorrak´e, geo hamen nola bertan zebe motorrak´e, jendia motorreta etortzen zana, ba, karrua´re sartzen zan, ta ya lan danak erten behar izaten zuen hemendikan ta, lana nahikua juntatzen zitzakun. Geo, kargako barkuak´e bai […] etortzen zian. Ta kargako barkuak jenealian txapezkuak izaten zian, egurrezkuak´e bai, baiño txapezkuak´e asko. Baiña eukitzen zuen bodega lurra egurrezkua, karga botatzekua, eta hura nola karga haundidxak ibiltzen zian, puskatu igual iten zan, ta hura´re arreglatu iten gendun lurra´re, txapezko barkuena, kosteruena. Lan asko, puf! Lana in deu!

6. Arrantza garairik onenak

- **Erref:** ZUM-013/009
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:13:10. **Bukatu:** 00:15:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra

Laburpena:

Bera soldadu egon zenekoa garai ona izan zen arrantzarako. Pasaia, Bermeok edo Ondarroak indar handia zuten eta barku asko izaten zituzten, baina orain guztiz galdua dagoela arrantza dio. Gaur egun inork ez du nahi itsasoan lan egiterik. Garairik onena 1960 ingurukoa izan zen. Herri bakoitzean ze arrantza mota egiten zen eta nola aldatu den kontua.

7. Zumaia beti ontzigintzari lotuta

- **Erref:** ZUM-013/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:55. **Bukatu:** 00:17:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

<p>Zumaian egurreko 3 astillero eta txapako bat (Balenciaga) zeuden. Itsasontzi ugari egiten ziren Zumaian. Betidanik egon izan da Zumaian lan horrekin lotura, aurretik ere Beduan ba omen zen astilleroa eta. Motorrak ere bertan egiten ziren (Unanue eta Yeregi). Garai batean motorren eskaera handia zegoen.</p>

Transkripzioa

- Ba lana pranko in deu! Lana ta lana ta lana! Barku berridax iten.
- Eta kuriosua da, gaiña, beste herri guztietan, arrantzaliak izan, baiña Zumaian arrantza gutxio, baiña barkuak konpontzen ta astillerruak eta onenak Zumaian.
- Zumaidxan zebe Beduan astillerrua, hamen Balentziagako onduan Zacarias deitzen zitzakona, bigarren astillerrua ta gu, hiru astillero egurrezkuak. Eta txapezkuak Balentziagan lau astillero. Hiru egurrekuak eta bat txapezkuak. Hamen barkua kantidadian iten zan. Baiño kantidadia. Beduan in dia barkuak! Jesus! Ta...
- Eta, zergaitik dauka istoriya hori Zumaia? Hau da, hainbeste astillero ta...
- Halakotxia zan Zumaia?
- Beti izan da?
- Zumaia beti izan da...
- Aitta ta aittitan partetikan, ta...
- Geo Beduan ta´re izan behar zuen astillerruak lehen. Gu baiño, gu jaidxo baiño askoz lehen. Zumaia beti izan da barko asuntuetakua, ta motorrak ´e iten zian, Unanue, Karmelo Unanue, hamen bertan, uaiñ´e etxiak iten ai dia. Bestia Yeregi, famosua zan Yeregi´re. Ta motorrak famosuak zian Zumaiko... Cuarenta y nueve Euxebio Mundo zan buru iten zuna, Euxebio Mundo deitzen zitzakon. Euxebio Yeregi zan, baiño Mundo, Euxebio Mundo. Kañoia jarri beharko zala jendia bialtzeko, atea etortzen zan jendia, cuarenta y nueve. Jende... motorren atzetik, motorren... motorren billa ta... abasto eman eziñ! Kañoia jarri beharko zala atian jendia bialtzeko. Euxebio Mundok.
- Bai, bai.
- Bildurgarridxa, bildurgarridxa zan. Ta Zumaia izan da itsasokua, baiña haundixetakua, haunditakua. Jendia dedikatzen zan dana-dana motorra, dana barkua, dana barkua.
- Dana, ezta? Bai astillerrua, motorra ta...
- Pentsa zazu, hiru astillero egurrezko ta txapezkuak lau, lau astillero. Ta

motorrenak famosuak, Yeregi´re famosua ta Unanue´re bai, Karmelo Unanue. Bidxak zian motor famosuak.

8. Astileroan egiten zituzten lanak

- **Erref:** ZUM-013/011
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:17:55. **Bukatu:** 00:18:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Itsasontziaren barrukoak ere egiten zituzten, baina soilik egurra zena; txapa konturik ez zuten egiten.

9. Itsasontziak egin ostean nola itsasoratu

- **Erref:** ZUM-013/012
- **Iraupena:** 0:03:16. **Hasi:** 00:18:24. **Bukatu:** 00:21:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Aita 1941erako ontzigintzan lanean zebilen Carmelo Unanuerekin. Ontzi txikiak egiten zituzten. Ontziak egin ostean nola itsasoratzen zituzten azaltzen du. Erraila prest egoten zen itsasertzetik tailerrerraino. Beraiek nola egiten zuten; atzeraka bota izan dute beti ontzia. Gerora eskoilera egin zen eta horrek arrisku handia du; itsasoratzean egon daitezkeen bestelako arriskuak. Lan handia izaten zen barkua botatzea. "Pleman", ura geldirik dagoenean, eta ur-handian bota behar da ontzia uretara.

10. Ilargiaren eragina itsasgora eta itsasbeheretan

- **Erref:** ZUM-013/013
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:21:40. **Bukatu:** 00:22:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Sineskerak, ohiturak eta erritoak

Laburpena:

"Alde handia dago uretik urera". Ilargiaren eragina itsasgora eta itsasbeheretan.

11. Itsasontziak itsasoratu ostean montatzen ziren

- **Erref:** ZUM-013/014
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:22:40. **Bukatu:** 00:23:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Lehorreko lanak » Ontzigintza

Laburpena:

Itsasontzia motorrik gabe botatzen zen uretara eta uretan egiten zitzaizkion lan horiek. Bota ondoren ere 3-4 hilabete egiten zituzten barkua montatzen. Astilerotik itsasora nola eramaten zen ontzia.

12. Beleroak Andaluziara gatzetara

- **Erref:** ZUM-013/015
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:23:45. **Bukatu:** 00:24:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Itsasoa » Arrantzontziko bizimodua eta lanak » Arrantza-orokorra
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Esaerak

Laburpena:

Beleroak Andaluziara joaten ziren gatz bila. Handik etortzen zirenean, esaera: "Ura balego, ardoa edango; urik ez dagoelako ura edan behar". Horren inguruko azalpenak.

13. Lan-baldintzak: 10 ordu egunero astelehenetik larunbatera

- **Erref:** ZUM-013/017
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:26:55. **Bukatu:** 00:28:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

14 urterekin lanean hasi zenean lana eta lana besterik ez zuten egiten. Egunean 10 ordu lan egiten zituzten astelehentik larunbatera eta igandetan ere sarri lan egiten zuten bikarioari baimena eskatuta (bekatua zen jai egunetan lan egitea). Larunbatetan lehenago irteten hasi zirenean alde handi nabaritu zuten eta jai egiten hasi zirenean izugarrizko aldea zen beraientzat. Gainera, egiten zuten lana astuna zen oso.

14. Zuloagari "tercera"ko hileta; hileta-klaseak

- **Erref:** ZUM-013/019
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:29:05. **Bukatu:** 00:32:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

<p>Tiplea zen koroan. Zumaiako ospitalea egiteko dirua jarri zuten Zuloagak eta torero ezagun batzuek. Hori dela eta, 1944an omenaldia egin zitzaion ospitalean bertan eta beraiek abestu egin zuten. Hurrengo urtean hil zen 75

urterekin. "Tercera"-ko entierroa egin omen zitzaion; Zumaian beste inori ez zitzaion halakorik egin eta berak testamentuan hala eskatuko zuela uste du. Entierro-klaseak: primerisima (oso aberatsena), primerakoa (aberratsena), segundakoa (arrunta) eta terzerakoa (pobreena). Jende asko etorri zen Zuloagaren hiletara.</p>

Transkripzioa

- Zuloaga ta esan dezu, ezautzen dezula, ezautu zendula?
- Zuloaga asko ezautzen gendun guk. Eta ni tiplia nitxan.
- Koruan.
- Koruan tiplia. Tipliak batzuk izaten dia altuak eta bajuak, eta ni bajutik izan naiz ni, beti tiplia. Eta gertatu zan cuarenta y dosian, cuarenta y cuatruan, omenajia. Ospitala, zumaiko ospital haura ezautzen al dezu nun daon? Ba hura iten parte izan zun bai Zuloagak eta geo torero batzuek´e bai, torero famoso batzuek, oaiñ izena momentuan ez naiz akordutzen, baiña torero famosuakin in zuen hoidxek, dirua atea zuen hoidxek ospitala iteko.
- Korridan bat, o...
- Bai, bai, bai, tipo horretan. Ta Zuloagak´e parte izan zun. Eta geo orduan in zitzakon omenajia ospitalian bertan cuarenta y cuatruan omenajia in zitzakon. Ta han giñan gu kantuan. Oso omenaje haundiya in zitzakon. Eta halako batian cuarenta y cincon Madriden zeola, Madriden hil zan Zuloaga, jo ta blast!, egun batetik bestea hil zan. Ta gu, Zuloaga zan guretzako zahar-zahar-zahar-zaharra. Ta orain zer da ta, bere altura harrapatu! Bere urtiak uaiñ!
- Hirurogeita hamabost urtekin edo hil zan, ez?
- Hirurogeita hamabost, hirurogeita hamabostekiñ. Ochocientos setentan jaidxua zan eta novecientos cuarenta y cincon hil zan. Setenta y cinco añoekin hil zan de repente. Ta zan, bueno! Entierruan´e, hantxe giñan gu zeatik entierruak danak gu ibiltzen giñan orduan, tipliak nola giñan.
- Kantuan.
- Ta tertzerakua in zitzakon. Tertzerakua ez zitzakon iñori iten Zumaidxan! Iten zan "primera", "primerisima", "primerisima" izaten zan aberratsa tipo ya izugarridxa, hamaiketan izaten zan hura. Eta mezak eoten zian, altare danetan mezak. Ta akabatzen zuenian meza bat, beste meza... ya, dirua! Ta geo, prailiak eta etortzen zian, ta haidxei in behar izaten zitzakuen gosaia prepaatu. Ta gosaia Xaharreneko... ez zendun zuk ezautuko? Xaharreneko taberna bazan, han bertan, bertan elizan azpidxan, behian. Eta han iten zan hamaiketakua, gosaidxa behintzat han in behar izaten zuen, zea, apaiz hoidxek, etortzen zianak. Gero primerakua, ya jende, jende aberratsa, primerakua, hura hamarretan. Ta han´e meza asko ematen zian. Ta geo normala, zumaiarrak gehidxenak, gu danok geure guraso, familidxetan ta danetan segundako entierrua, betzitan.
- Goizeko bederatzitan.
- Goizeko beatzitan.
- Eta hori ya apaiza bakarra, edo?
- Bai, bai! Earra izaten zan hura´re! Nahikua! Primerak eta hoidxek zian, bueno! Izugarridxak! Ya, nola izaten da, aberratsak esateko mouan. Ta, guk, gure familia dana, danak segundako entierruakin jun dia danak haidxek´e. Jende normala ibiltzen zana dana segundakua. Normala, entierro normala. Ba, tertzerakua in zitzaion Zuloagai bakarrik, beste iñoi´re ez zako in.
- Eta?
- Nonbait beak eukiko zun testamentuan o nononon jarrita, bestela ezin leike! Tertzerakua in zitzakon. Hori...
- Hala nahi zula.

- Bai. Beak ez zun hori hiltzeko astiik izan, hori esateko. Baiña lehendik eskribituta o zeoze eukiko zun hor nononon. Testamentuan o eongo zan apuntauata tertzerakua behar zula entierrua. Ta hori zan bajuena, zanik bajuena. Ta Zuloagai ez zitzakon hori tokatzen. Zuloagai tokatzen zitzakon primera o primerisima. Primerisima tokatzen zitzakon. Baiña beak nahiko zun, ta!

- Eta nun izan zan? Hamen elizan, ta herriko jende guztiak´e parte hartu, ta... Nolakua izan zan?

- Bai, holantxe, herridxan. Orduan, ba al dakizu, jende gehidxegi juteko ´re... Lana in behar izaten zan, ta familiarra o zoze tartekua izan ezenian, baiña kanpotik´e jende asko, auskalo eibartikan ta zenbat etorri zan! Eibartarra zan, ta! Famosua zan Zuloaga.

15. Zuloagaren inguruko kontuak

- **Erref:** ZUM-013/020
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:32:40. **Bukatu:** 00:34:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Zuloaga ez zuten asko ikusten Zumaian kalean. 1944an Zuloagak dagoeneko 74 urte zituen eta beraiek artean gaztetxoak ziren. Ordurako Zuloaga Madrilén asko egoten zen eta udaran bakarrik egoten zen Zumaian. Zumaia kale batek Juan Belmonte toreroaren izena dauka. Belmonte Zuloagaren laguna izango zela komentatzen dute.

Transkripzioa

- Hemen, kalia eta, asko ibiltzen zan Zuloaga?

- Ez, ez, ez. Gure goguan, neretzako ya gizon, ya gu mutil koskorak giñala, pentsa zazu, cuarenta y cuatron nezkan nik hamabi urte, eta hark zezkan hirurogeita hamalau urte. Eta guk ya ez gendun hamen, hori ya kanpuan ta asko, Madriden ta hori ya jarrita zeon. Neretzako pintura ta dana ingo zun horrek Madriden!

- Hemen udaran ta izango zan.

- Udaan ta bere gauzak eta bere zeak ingo zitun, baiña ez horrela, kalia normal. Gu gehidxenok ezautu... gure gurasuak eta ezautuko zuen akaso, baiña guk ez.

- Baiña ez zan kalia eta txikiteuan eta ibiltzen?

- Ez! Ez zan holakua. Pentsatu´re! Gizon formala, ziharo! Formala.

- Ta hor badira beste kale batzuk, holan, torero batzun kalia eta, badira ez, Zumaidxan?

- Toreruenak.

- Belmonte...

- Juan Belmonte. Juan Belmonte kalia bado Zumaidxan, bai.

- Eta hori hamen ibiltzen zan?

- Juan Belmonte ta lagunak izango zitun zeak, Zuloagak. Oso lagun haundidxak, haundidxak. Hareatikan eongo dia hamen haekin rozatu duenak eongo zian hamen, Juan Belmonte ta habek danak, berekin rozatu zuen lagunak, beriak, bere lagunak.

16. Koroan abesten nola hasi zen

- **Erref:** ZUM-013/021
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 00:34:00. **Bukatu:** 00:36:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Elizako organista Tolosa ingurukoa zen: Angel Araolaza. Bere arreba haren etxean zegoen lanean eta harreman handia zutelako eta zaletasuna zuelako hasi zen koroan. Elizatik aparte ere bazuten koroa eta Santa Ageda eskean ibiltzen ziren; inoiz Azpeitiraino ere joan izan ziren. Irailaren 7an Ama Birjinaren egunaren bezperan salbea kantatzen zuten; famosoak izaten zen. Bera ibili zenean gizonezkoek osatzen zuten koroa. Bera triplea zen.</p>

17. Santa Ageda eskean eta gabon eskean ibiltzen ziren mutil gazteak

- **Erref:** ZUM-013/022
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:36:20. **Bukatu:** 00:39:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Mutil gazteek bestelako koroa ere osatzen zuten elizako korotik aparte. Santa Ageda eskean ibiltzen ziren, bai herrian eta baita inguruko herrietan ere inoiz. Gabon egunean era jaiotzarekin irteten ziren kalera abestera eta poltsa pasatzen zuten dirua biltzeko. Zumaiaiko ohiturak ziren bi hauek. Euskaraz abesten zituzten kanta guztiak eta don Angel organistak prestatzen zizkien abestien letrak.</p>

18. Herriko eskola, maristen eskola eta Joxe Ramon irakaslea

- **Erref:** ZUM-013/024
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:40:55. **Bukatu:** 00:42:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

Laburpena:

<p>Herriko eskolan ("maisuetan") ibili zen eta gero baita maristetan ere. Maristak bidali egin zituzten eta gero mertzedarioak etorri ziren. Maristetakoa eskola ona zela komentatzen du. Maristak joan zirenean Joxe Ramon irakasle donostiarrarekin ibili zen. Irakasle ona zen. Maristen eskola non zegoen. Maristetan mutilak bakarrik egoten ziren eta neskak kolegioan, monjetan.</p>

19. Gizartearen aldaketa; emakumeen aurrerakada

- **Erref:** ZUM-013/025
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:42:35. **Bukatu:** 00:43:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Gizartea izugarri aldatu da arlo guztietan. Lehen emakumezkoak zapalduta zeuden eta botorik ere ez zuten. Gaur egun alkate era badira emakumeak eta gero eta gorago doazela dio. Lehen ilundu orduko etxean egon behar izaten zuten emakumeek. 30 urte ezkerro moñoa eramaten zuten eta etxetik irten ere ez ziren egiten ia. Bere ama 87 urterekin hil zan eta sekula ez zuen kaferik hartu tabernan.

20. Gurasoak egunero belauniko errezatzen

- **Erref:** ZUM-013/026
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:43:50. **Bukatu:** 00:44:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Gurasoak fede handikoak ziren; belauniko egoten ziren misterioak errezatzen egunero. Lanean hasi ondoren ere bera mezara eta arratsaldeetako bezperetara joan behar izaten zen, amak esanda. Gero ze apaiz egon zen kontatu behar izaten zion amari, mezatan izan zela ziurtatzeko.</p>

21. Gerraostean gose handia pasatakoa

- **Erref:** ZUM-013/027
- **Iraupena:** 0:05:10. **Hasi:** 00:44:40. **Bukatu:** 00:49:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

<p>Gerra hasi zenean lau urte zituen. Gose handia pasa zuten, soroak izan arren."Muakillakin" (irina egosita) salbatu zirela dio, hark alimentu handia

ematen ziela eta. Baserrietan jenero gehiago izaten zuten eta haien inbidiatan egoten ziren. 1952an joan zen soldadutzara eta artean errazionamendua zegoen. Soldadutza kritikatzeko zuen jendeak, baina beraiek behintzat han janaria izaten zuten. Hemen gose handia pasatzen zuten eta, gainera, astileroan gogor lan egin behar. Narrondoko errotan baino Txabola ingurukoan gehiago ematen zutela eta amak hara bidaltzen zuen artoarekin kargatuta, urrunago egon arren. Olio botilak 20 ogerleko balio zituen eta aste osoa lan egin beharra zegoen hori ordaintzeko. Razionamentuan klaseak egoten ziren eta beraiek bajuena zuten, terzerakoa.</p>

22. Erdi-baserritarrak ziren, soroak bazituzten

- **Erref:** ZUM-013/028
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:49:50. **Bukatu:** 00:52:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Beraiek erdi-baserritarrak ziren. Euren etxe non zegoen. Eskolarakoan simaurra eramaten zuen sorora bizkarrean hartuta. San Telmo kale inguruan normala zen etxeek soroak izatea. Jabeak ez zirenek errentan izaten zituzten lur-sailak. Ganadurik ez zuten etxean, baina astoa bai.

23. Gurasoak zumaiarrak; Zumaiako abizenak

- **Erref:** ZUM-013/030
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:54:30. **Bukatu:** 00:55:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Gurasoak biak zumaiarrak ziren: aita Marino kalean jaioa eta ama zen San Telmoko etxekoa. Senide asko dituzte, batez ere, Etxabe, Epelde eta Zubia abizenetakoak.

24. Gaztetako jolasak: uztia eta "obakua"

- **Erref:** ZUM-013/031
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:57:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Gaztetako joko inportanteena uztia izaten zen. Txapazko uztia eskuarekin bultzaka eramaten zuten. Batzuetan Narrondoraino ere joaten ziren. Beste jolas bat "obakua" izaten zen. Koadratu baten barruan treneko bileteak jarri eta haiek kanpora atera behar ziren burnizko plaka batekin. Futboleak eta arraunean ere ibiltzen ziren.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com